

hirugarren bertsoan egin zuen akatsa. Elortzak eta Fredi Paia botatu zuten bertso politik biek egin zuten saioan. Paia eskalea aparkaleku batean lotan ari dela, jabeak bozina jo dio.

Igor Elortza:

*Sartu ta joan zara
zu parking erdira
Bozina hotsa entzun
ta itzartu di-da
Ez dau euririk eiten
zerua argi da
itxi keizteari
eta zoaz tira
Hoba zagoz parkean
izarrei begira.*

Fredi Paia:

*Kalez kale nabil ni
eskale antzeko
Bildurra jipoiren bat
behingoan hartzeko
Parking hau aurkituta
esan dut: ederto!
Baina usaba jaunak
dino joateko...
kotxeak bizi dira
ni baino hobeto.*

Fredi Paiaren saio onaz gain, Arkaitz Estiballesen lana izan zen aipatzeko modukoa. Batzuetan zabar aritzen da bertsoan; hala ere, herenegun oso ale dotoreak utzi zituen Euskalduna jauregian bildutakoentzat. Bigarren fasera igaro ziren lau bertsolarien artean izan zen. *Aizak hi mutil mainontzi* doinuarekin egin behar izan zuten lanean, Igor Elortza egokitu zitzaion aldamenean. Hirugarren bertsoan izan zuen akats bat alde batera utziz gero, oso lan polita osatu zuen. Urte berrirako ordubete falta dela ospitalean dauden emakume bi dira Igor eta Arkaitz. Kontrakzioak igaritzen hasi diren unean egin behar izan zuten bertsotan.

Arkaitz Estiballes:

*Gu zoriontsu garena,
nola izango bestela.
Aurpegian dut irrifara ta
begian umela.
Hau sufrimendu itzela!
A zer nolako pastela!
Ia irteten dan txanpain botilan
kortxo bezela.*

Azken saiorako sailkatu ziren Igor Elortza eta Aritz Lopategi. Bederatzi puntuko bertsoa eta bakarrean egin beharreko hirurak ondo bete zituzten biek. Ondoren eman zuten erabakia epaimahaikideek, eta berriro ere Igor Elortza izendatu zuten Bizkaiko bertsolarien txapel-dun. Azken agur hunkigarrian Santi Belar —Iturriaga eta bien *itsumutila* izan zena— eta Jon Lopategi gogoratu zituen Elortza, beste batzuen artean.

*...ta batez be zugaz Jon,
batez be 'Baltza'-gaz.
Zeuri eskerrak naz ta
bertsolari banaz.*

IGOR ELORTZA TXAPELDUNA

INIGO AZKONA

«Laprast egin dutenek ere maila altuan egin dute»

Iñigo Olabarri | BILBO

Bizkaiko txapel-dun duela bi urte eta aurreko txapel-dun berriro ere, Igor Elortza gero eta maila hobea eskaintzen ari den bertsolaria da. Lagun arteko afari batekin ospatu zuen igande gauean arratsaldean eskuratutako garaipena. Hurrengo egunean hitz egin zuen EGUNKARIAK Durangoko bertsolariarekin, atzo beraz. Finaleko mailari altu deritzo Elortzak, eta bere txapel biak azken urteetan etenik gabe egindako lanaren ondorio direla adierazi du.

■ Bigarren txapelak lehenengoak baino ilusio handiagoa egin al dizu?

Gustura jaso nuen, bai, baina desberdina da. Ordukoan irribarrea errazago ateratzen zitzaidan, baina atzo ere gustura geratu nintzen; batez ere igandean jokatu genuena maila altuko finala izan zela iruditu zitzaidalako. Finalean laprast egin zuten bertsolariek ere maila altuan egin zuten laprast, nire ustez.

■ Maila altua aipatu duzu,**baina hasieran nahiko hotz aritu zineten...**

Bai. Zortziko nagusian, logikoa den bezala, norbere burua aztertzea da egin ohi duguna, ea egun horretan geure burua zer moduz ikusten dugun ikusi. Zortziko txikia ere aparteko lanik eskaini gabe igaro zen. Une garrantzitsuena izan zen Aritz Lopategi bakarrean hasi zenekoa. Bederatzikoa hartu zuen Aritzek, bertso dotore bi egin zituen, goitik behera, eta horrek markatu zuen gainontzekoen bidea ere. Guztiok ahal genuen guztia eman behar izan genuen.

■ Arkaitz Estiballesen lana aipatu duzu; bera izan zen, beharbada, saioko ezustekoa...

Finaleko garaile nagusia izatea asko izango litzateke beharbada, txapela azken batean hemen dago-eta, neure eskuetan, baina finaleko saioan gehien irabazi zuen bertsolaria Arkaitz Estiballes izan zen; bere merituz, gainera. Bakarreko lanean bertso on bi ateratu zituen, eta gero

laukotera sartu zenean, hazi egin zen eta zaleak behin baino gehiagotan txaloka jarri zituen. Asmatu egin zuen, bete-betea asmatu ere. Fredi Paia ere oso ondo ikusi nuen. Estiballes eta Paia laugarren eta bosgarren geratu ziren euren merituz. Mundu hau gertutik ezagutzen dutenentzat ezusteko erlatiboa izan zen finalekoa. Nik entzun izan ditut bi horiek bertsotan finaleko moduan.

■ Esan liteke bertsokerari dagokionez Igor Elortza azken urteetan asko aldatu dela?

1997ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren ostean, ezin esan liteke hor data zehatz bat dagoenik, baina bertsoen gaiari zenbait buelta eman nizkion. Ordukoan finaleko ateetan geratu nintzen. Duela urte biko Bizkaiko Bertsolari Txapelketan dagoeneko egin nuen apustu bat. Bertsokera landu, neure buruan konfiantza izan eta aurrera egitea zen nire asmoa. Urte batzuk baziren

PRESTAKUNTZA

«Lan jakin batena baino gehiago, eten barik egindako lanaren emaitza da, nire ustez, txapela»

TXAPELKETAK

«Lau urterik bat egiten dugu txapelketa barik. Horretaz hitz egin behar genuke»

bertsotan nenbilela, eta tarteko bide batean gora eta behera hamar urtean jarraitzearekin ez nion zentzurik bilatzen. Nik uste dut lantzea baino gehiago izan dela serio hartzea; neukan guztia ematea.

■ Duela urte bi jasotako txapelak ere izango zuen eraginik, ezta?

Txapelketa hartarako prestatze lan bat egin nuen, eta txapela irabazi eta gero jaialdi askotara joateko aukera izan dut. Bertsoa protagonista den jaialdi askotan izateko aukera izan dut harrezkero. Horrek eragin handia izan du. Lan jakin batena baino gehiago, eten barik egindako lanaren emaitza izan da, nire ustez, txapela.

■ Bertsoa goitik behera josten ari den bertsolari bat entzuten du bertsozaleak Elortza bertsotan ari denean...

Horretarako txipa beti martxan edukitzea garrantzitsua izaten da. Betiko hiru erimak hartu eta gero bukaera batekin bertsoak egitera mugatuta ere, lasai-lasai egin dezakezu bertsotan. Batzuetan badirudi txapelketarako egiten den lana dela. Egia da txapelketarako beste lan bat egiten dela, batez ere errimek lotutakoa neurri handietan ziurtasuna izateko. Baina beste alderdia, joskerena-eta, baliagarria da neurri handietarako zein txikietarako.

■ Datorren urtean Euskal Herrikoa...

Hori ere aipatu genuen. Urte birik behin Bizkaiko txapelketa izaten dugu eta lau urterik behin Euskal Herrikoa. Urte bat bakarrik libratzen dugu. Nik 25 urte ditut eta gustura ari naiz mundu honetan, baina beharbada 30era iristen garenerako kokoteraino egongo gara. Oraindik eusteko moduan gaude, baina urtero-urtero goi mailan ibiltzeko motibazioa bilatzea... Hilabete bi izaten dugu txapelketa buruan eta gogorra da. Horri buruz beharbada berba egin beharko litzateke.